



Bizkaiko Indarkeria
Matxistaren Behatokia
Observatorio de la *Violencia*
Machista en Bizkaia

TXOSTENA

**GENERO-INDARKERIAKO EGOERETAN
EMANDAKO LAGUNTZAREN ZIFRAK BIZKAIKO
LURRALDE HISTORIKOAN**

2019

AURRERAPENA

2020ko ekaina

SARRERA

Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiak (lehen, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia) “Genero-indarkeriako...” txostenaren aurrerapena aurkezten du. Behatokiak urtero argitaratzen du txosten hori, Bizkaian emakumeen aurkako indarkeria-egoeretan ematen den laguntzari buruz, EAEko egungo Erakunde arteko Akordioak jasotzen dituen bi indarkeria-motak kontuan hartuta: etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria.

Txosten horren bertsio osoa, “Genero-indarkeriako...”, urteko bigarren sei hilekoan argitaratuko da, eta esku hartzeko arlo guztien, informazio-iturrien, aldagaien eta 2019ko datuen desagregazio-mailen berri emango du.

Argitalpen horrek esku hartzeko lau esparruri buruzko datuak aurreratzen ditu. Hona hemen esparruok: gizarte-, polizia-, justizia- eta osasun-esparruei buruzkoak. Urtean zehar esparru horietako zerbitzuetan jasotako eskariari buruzko adierazle orokorrak jasotzen ditu labur-labur, bai eta hartutako aldian zerbitzuetan izandako sarreraren jarraipena egin ahal izateko eboluzio-datuak ere.

Iturri hauen datuak jasotzen ditu:

- ↳ Bizkaiko udalerri eta mankomunitateak¹
- ↳ Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila
- ↳ Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila
- ↳ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
- ↳ Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saila
- ↳ Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila
- ↳ Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

Behatokiari beren erregistroetako datuak ematen dizkieten erakundeen lankidetzaz ezinbestekoa da Bizkaiko emakumeen aurkako indarkeriaren egoerari eta bilakaerari buruzko ezagutza hobetzeko. Lankidetzaz hori gabe, ezinezkoa izango litzateke “Genero-indarkeriako...” seriearen edizioak egitea. Serie horrek, 2004az geroztik, hainbat iturritako datuak biltzen ditu, Bizkaian bi indarkeria-mota horietako bat jasaten duten emakumeei arreta-zerbitzuek ematen dieten laguntzari buruz.

¹ Beste urte batzuetan ez bezala, baliabide-mapari buruzko udal-datuak soilik sartu dira edizio honetan.

1.OSOKO GIZARTE-ARRETA

1.1. HARRERA


Bizkaian, bai Foru Aldundiak (BFA) bai udalerri eta mankomunitate batzuek harrera-zerbitzu espezifikoak ematen dituzte emakumeen aurkako indarkeria-kasuei erantzuteko.

Foru-aldundiak larrialdiei erantzuteko zerbitzu bat kudeatzen du, Bizkaiko lurralde osorako. Halaber, egonaldi ertain eta luzeko beharrei erantzuteko zentroak, eta gizarteratzeko eta laneratzeko etxebizitzak eskaintzen ditu.

Lurralde-mapan, udalerriek eta mankomunitateek kudeatutako baliabideak ere ageri dira; harrera-etxebizitzak dira gehienbat². Irudi honek erakusten du laguntza-mota horrek 2019an izan duen lurralde-estaldura:

1. irudia.

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA
HARRERA-BALIABIDE ESPEZIFIKOAK (ZENTROAK/ETXEA) 2019



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak eta Bizkaiko udalerri eta mankomunitateek emandako datuetan oinarrituta.

² Barakaldok harrera integraleko zentro bat du.

BFAko Larrialdiko Harrera Zerbitzua

2019an, **112 emakume** sartu ziren Foru Aldundiaren Larrialdiko Harrera Zerbitzuan. Erdiak inguru (% 48) beren seme-alabekin joan ziren; guztira 85 (84 adingabe). Mendeko pertsona heldu bat ere sartu zen. Guztira, **198 pertsona** izan ziren.

Emakume-kopuru hori 2004tik izandako **kopuru handiena** da. Bestalde, seme-alaben kopurua eta pertsonen guztizko kopurua izan ziren haien serieetako bigarren balio altuenak.

Baliabidearen datuek azken 16 urteetan izan duten bilakaerak (hurrengo taulan jasota dago) erabiltzaileen bolumenak gorabeherak izan dituela erakusten du.


1. taula. BFAko Larrialdiko Harrera Zerbitzua: Emakumeak, seme-alabak eta mendeko pertsona helduak.
2004-2019

	04	05	06	07	08	09	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19
Emakumeak	98	87	103	108	102	86	55	69	93	81	63	97	94	90	105	112
Seme-alabak	80	64	60	74	73	68	45	74	79	70	43	74	82	70	100	85
Helduak	*	*	*	*	*	*	1	0	1	0	1	0	0	2	3	1
Guztira	178	151	163	182	175	154	101	143	173	151	107	171	176	162	208	198

(*) Ez dago horri buruzko daturik.

Iturria: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta. BFA

Baliabidean egindako **egonaldiaren batezbesteko iraupena** 10 egunekoa izan da 2019an. Bilakaerari dagokionez, erabiltzaile-kopuruaren gorabeheraz gain, egonaldiaren batez besteko iraupena **pixkanaka handitu da** lehen hamarkadan: 2004an, batez besteko egonaldia bost egunekoa izan zen, baina hurrengo urteetan luzatu egin da, eta 2014an, 21 eguneko iraupen maximoa izan zuen. Urte hartatik aurrera, behera egin du, eta hurrengo hiru urteetan, hamabost egun inguruan finkatu da. Azken bi urteetan, txikitzen jarraitu du iraupenak, 2014an izandako maximoarekin alderatuta. Dena den, aldi osoan, egonaldiaren iraupenak gora egin du, bi arrazoi hauengatik batez ere: zerbitzuan artatutako kasuak gero eta konplikatuagoak direlako, eta sistemak zailtasunak dituelako beste erakunde edo arreta-eremu batzuen eskumenekoak diren egoitza-baliabideetako harrera-premiari bizkortasunez erantzuteko.




Iturria: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta. BFA

2019an sartu ziren emakumeen ezaugarriei dagokienez, hauek dira nabarmentzekoak:

Jaiolekuaren arabera, emakume erabiltzaileen % 72,3 atzerriko herrialdeetan jaiotakoak ziren; guztira, 81 emakume, aldi horretako balio absolutu handiena, hain zuzen. Gehienak, jatorriz Latinoamerikakoak eta Magrebekoak ziren (hurrenez hurren, % 53 eta % 35).

Aurreko txostenetan adierazi bezala, 2004tik aurrera baliabide horren erabiltzaileen **profila** aldatu egin da jaioterriari dagokionez.

Atzerriko emakumeen bolumena handitu egin da balio absolutu eta erlatiboetan, eta bat dator bertakoen eskariaren beherakadarekin. 2007an, lehen aldiz, atzerrian jaiotakoen ehunekoak bertan jaiotakoena gainditu zuen, eta ordutik –urte batean salbu– handiagoa izan da, 2019an % 70era arte iritsiz.



Iturria: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta. BFA

Egoera horren ondorioz sortzen diren hizkuntza-oztopoak gainditzeko, Larrialdiko Harrera Zerbitzuak itzulpen-zerbitzu bat du, telefono bidezkoa zein aurrez aurrekoa, 50 hizkuntza baino gehiagotan eskuragarria. Azken urtean, interpretazio-modalitate horietan, arabiera, frantsesa eta ingelesa erabili dira.

Adinari erreparatuz gero, 2019an ere, **heldu gazteena** da profil nagusia: %78k ez ditu 40 urteak gainditzen, eta horietatik, 18 eta 30 urte bitarteko tartea nabarmentzen da (erabiltzaileen %42). Beste urte batzuetan bezala, adin-tartea zabala da, 18 eta 72 urte bitartekoa.

2019ko emakume erabiltzaileen % 12k **desgaitasun- eta/edo adikzio-egoeren** (batzuetan, bi-biak) ondoriozko behar espezifikoak ditu, eta horrek esku-hartzea eta terapia baldintzatzen dituzte.

Hain zuzen, desgaitasunari dagokionez, egoera horretan dauden emakumeak –, desgaitasun bat edo gehiago dituztenak– urtero sartzen dira baliabidean. Taula honetan, 2012tik aurrerako datuak jaso dira. Aipatzekoa da 2015. urtea, erabiltzaileen % 18,5 baitziren.

2. taula. BFAko Larrialdiko Harrera Zerbitzua. Desgaitasuna duten emakumeak. 2012-2019

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Desgait. emak. kop.	3	6	9	18	5	11	8	10
Erabiltzaile guztien %	3,2	7,4	14,3	18,5	5,3	12,2	7,6	8,9

Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta.

Larrialdiko Zerbitzura jo zuten emakumeen % 41ak **aldi baterako harrerako** modalitatean jarraitu behar izan zuten: 46 emakume, 32 adingaberekin, foru- edo udal-egonaldi ertain edo luzeko baliabideetara igaro ziren.

BFAko egonaldi ertaineko edo luzeko harrera-zentroak

Egonaldi ertain eta luzeko harrerako foru-baliabideek 81 pertsonari eman zieten arreta 2019an: 46 emakumeri eta haien 35 seme-alabei (34 adingabe). Lehen bi kasuetan, beren serieetako zifra handienak izan ziren.

Kasu-motaren arabera, kasu berrien kopurua ere aldiko handiena izan zen: **27 erabiltzaile sartu ziren 2019an**, eta 19 aurretik zeuden baliabidean.

Erabiltzaile berrien erdiak baino gehiago (% 55,6) Larrialdiko Zerbitzutik zetozen. Haien ezaugarriei dagokienez, atzerriko herrialdeetan jaiotakoen proportzioa handia izan zen urte hartan ere (% 74), eta bereziki nabarmentzen dira adinari lotutako kalteberatasun-egoerak – kasu honetan, adin-talde gazteenak–; izan ere, aldi baterako harrera-baliabide hori erabili behar izan zuten *hamar emakumetik zazpi* 18 eta 30 urte bitartekoak ziren.

BFAko gizarteratzeko eta laneratzeko etxebizitzak

Zerbitzu hori 2013. urtearen amaieran jarri zen martxan, eta foru-erakundearen harrera-baliabideak erabiltzen dituzten emakumeak gizarteratzeak eta laneratzeari du helburu.

Harreraren gainerako modalitateetan bezala, baliabide horretan ere 2019ko zifrak aldiko handienak izan ziren.

Urtean zehar, 27 pertsona hartu zituen: 14 emakume eta haien 13 seme-alaba, guztiak adingabeak. Haietatik, 11 urtean sartu ziren, 10 adingaberekin batera. Ia kasu guztietan (10), atzerriko herrialdeetan jaiotako pertsonak dira. % 82k ez ditu 40 urteak gainditzen.

1.2. AHOLKULARITZA JURIDIKOA


Bizkaiko lurralde historikoan, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak ematen duen laguntza juridikoko zerbitzuarekin batera, **auzi aurreko aholkularitza juridikoko doako zerbitzuak** ere badira etxeko indarkeriaren edo/eta sexu-indarkeriaren biktimentzat, Bizkaiko zenbait udalerritan eta mankomunitatetan.

Zerbitzu horien bidez, bi indarkeria-mota horietakoren baten biktima diren emakumeei jakinarazi nahi zaie zer aukera ematen dizkien ordenamendu juridikoak: zer eskubide dituzten, nola eta noren aurrean salatu behar diren gertaerak, nola eskuratu baliabide juridikoak eta sozialak... Eta horrezaz gain, eta beharrezkoa izanez gero, prozesu judizialean ere esku hartzen da.

Mapa honek erakusten du laguntza-mota horrek 2019an izan duen lurralde-estaldura:

2. irudia.

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA
AHOLKULARITZA JURIDIKOA 2019



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak eta Bizkaiko udalerrri eta mankomunitateek emandako datuetan oinarrituta.


BFAren Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua

BFAko **Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak**, besteak beste familia-zuzenbideari eta tratu txarrei edota sexu-erasoei buruzko informazio juridikoa ematen duenak, emakumeen 406 kasu berri jaso zituen 2019an.

Herenek aholkularitza behar izan zuten etxeko tratu txarreetatik (132 emakume), eta % 6k, sexu-indarkeriatatik (25 emakume). Horrek esan nahi du zerbitzuak lagundutako hamar erabiltzaile berritik ia lauk emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako egoera zutela (% 39).

Horrek esan nahi du hilean **13 erabiltzaile berri** erregistratu direla bi indarkeria mota horietako batean; 2005ean, 6 erabiltzaile ziren hileroko.

Urteko datuen sekuentziak adierazten du zerbitzu hori erabiltzen duten emakumeen artean tratu txarren intzidentzia **gero eta handiagoa** dela (urtean zehar baliabidera joaten diren erabiltzaileen artean erregistratutako tratu txarren kasu berriak). 2005az geroztik, gorakada erregularra izan da, etenaldi gutxirekin, errekurtsioan artatutako gainerako kasuetan ez bezala.




Iturria: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta. BFA

Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria

Tratu txarren % 90 bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoak izan ziren: guztira, 119 emakumek jaso zuten horri buruzko aholkularitza juridikoa.

2019ko datua % 10 txikiagoa izan zen 2018koa baino. Hala ere, aztertutako urteetan, oro har, datu horrek goranzko joera izan du, eta horrek erakusten du kasu horiek gorakada izan dutela Zerbitzuan: 2,3 aldiz handiagoa da 2005ean artatutako erabiltzaileen kopurua baino.



Iturria: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta. BFA

Erabiltzaile berri horien ezaugarriei dagokienez, erdiko adinetako emakumeak dira, batez ere, baliabidean daudenak: % 70 31 eta 50 urte bitartekoak (% 44, 41 eta 50 urte bitartekoak).


Jaioterriari dagokionez, ia laurdenak (% 24) atzerrian jaioetakoak dira. Eskuarki, haien ehunekoa % 19tik behera dago.

% 13k desgaitasunen bat du.

1.3. ARRETA PSIKOLOGIKOA

Bizkaian, Foru Aldundiak 1992az geroztik ematen du arreta psikologikoko zerbitzu espezializatua familetan esku hartzeko, tratu txarren eta sexu-erasoen egoeretan.

Era berean, zenbait udalerri eta mankomunitatek arreta psikologikoko programak kudeatzen dituzte. Gehienak programa orokorrak dira, eta ez daude emakumeen aurkako indarkeriara berariaz bideratuta; programa horietako batzuek biztanleria osoa dute jomuga, eta beste batzuek, berriz, emakumeak soilik. Kasu askotan, tratu txarrekin edo sexu-erasoekin loturiko arazo espezifiko bat hautematen denean, biktimei arreta emateko programa foral espezializatura bideratzen dira pazienteak.



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak eta Bizkaiko udalerri eta mankomunitateek emandako datuetan oinarrituta.

BFAko Arreta Psikologikoko Zerbitzua

BFAk **familian esku hartzeko arreta psikologikoko zerbitzua** ematen du **tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetan** (helduentzat zein adingabeentzat). 2006ra arte, zerbitzua Bilbon zentralizatuta zegoen. Harrezkeroztik, eta hurrengo hamarkadan zehar, deszentralizatu egin zen pixkanaka, eta gaur egun, zazpi arreta-puntu ditu lurraldean:


- ✚ Bilbao
- ✚ Markina-Xemein: Lea-Artibaiko Mankomunitateko eta Aulesti eta Munitibar udalerrietako biztanleei laguntzen die.
- ✚ Zalla: Enkarterriko Mankomunitateko eta Balmasedako biztanleei laguntzen die.
- ✚ Ugao: Nerbioi eskualdeko biztanleei laguntzen die.
- ✚ Durango: Durangoko Merinaldeko Mankomunitateko eta Berrizko biztanleei laguntzen die.
- ✚ Gernika-Lumo: Busturialdeko eskualdeko biztanleei laguntzen die.
- ✚ Igorre: Arratiako Mankomunitateko biztanleei laguntzen die.

Programaren egitura aldatzeaz gain, zerbitzua emateko ordutegia zabaldu ere egin da, behar bezala erantzun ahal izateko urtez urte hazten doan eskaerari, hurrengo ataletan jasotako kopuruen bilakaerak erakusten duten moduan. Azken urtean, asteko 669 orduko prestazioari eutsi zaio.

2019an, **1.568 pertsonak** jaso zuten arreta zerbitzu honen bidez (% 89,5 emakumeak ziren). Haietatik, **1.400 emakume eta neska inguru** –hain zuzen, 1.374– programak jorratzen dituen bi indarkeria-motetako baten **biktima** izan ziren.

Aurreko urtearekin alderatuta, laguntza jaso duten pertsonen kopuruak % 2,8 egin du gora. Datua kasu-motaren arabera aztertzean³ (910 kasu berri eta aurreko 658 kasu artatu dira), ikusten da kasu berrien kopurua aurreko urteetakoaren antzekoa dela. 2013 eta 2015 bitartean dinamizatu egin zen programaren deszentralizazioa. Hartara, lau arreta-puntu berri zabaldu ziren, eta hori argi ikus daiteke erregistratutako kasu berrien kopuruan. Izan ere, handituz joan dira, urtez urte, hirurteko horretan. 2015ean, 900 kasuen langa gainditu zen, eta ordutik, antzeko mantendu dira kopuruak.

³ Esku hartzeko programak hiru-lau hilabeteko iraupena du, eta jarraipena egiteko epea, berriz, urtebetekoa da. Hortaz, ekitaldi bakoitzean, kasu berriak (espedientea irekitzea edo berriz irekitzea barne hartzen dutenak) eta tratamendua aurreko urteetan hasi duten pertsonak daude aldi berean.



Iturria: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta. BFA

Aztertutako aldiaren artatutako eskaria etengabe handitu da, zerbitzuaren deszentralizazioak aurrera egin eta ordutegia zabaltzeko ahala. 2017an, maximora iritsi zen, 1.711 pertsonari eman baitzitzairen arreta; kopuru hori 2,6 aldiz handiagoa da aldiaren hasieran erregistratutako bolumena baino (658 pertsona 2005ean).


Familia-esparruko indarkeria (pertsonek helduak)

Zerbitzuan artatutako pertsona gehienek familia-arloko indarkeriak eragindako ondorio psikologikoak gainditzeko jaso zuten tratamendua. Kasu kronikoak eta larriak ziren gehienak.

2019an, 1.129 pertsonak eskatu zuten laguntza; haietatik, % 96,4 emakumeak ziren (1.088 emakume). Ohikoa denez, erdiak baino gehiago (% 57) kasu berriak ziren, 615 emakume, hain zuzen.

Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria

Erasotzailearekiko harremanaren arabera, paziente berrien % 90 bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-egoeran zegoen: **551 emakume**. Hau da, batez beste, **hilero 46 emakumek abiatu zuten terapia bat** programan, indarkeria-mota horren ondorioz. Bilakaerari dagokionez, adierazle horrek goranzko joera du aztertutako aldiaren hasieratik (2006an, 23 kasu zeuden hilero).



Iturria: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna sustatzeko sailak emandako datuetan oinarrituta. BFA

Gehienek (**% 83**) **seme-alabak zituzten** ardurapean. Batez besteko adina **42 urte** zen; aztertutako aldian aldatu ez den adierazlea da. Adin-tarteen arabera, erdiko adinetako emakumeak ziren gehienak: ia bi heren (**% 64**) 31 eta 50 urte bitartekoak ziren (emakume gehien dituen adin tartea, aldiz, 41 eta 50 urte bitartekoa izan zen, **% 35** baitziren).

Jaiolekuaren arabera, **% 75** bertan jaiotako emakumeak ziren, eta **% 25**, atzerriko herrialderen batean jaiotakoak. 139 emakume ziren, guztira, atzerrian jaiotakoak; serieko balio handiena da (2016az geroztik, horren antzekoa izan da datua). Aurreko urteen antzera, **% 69** Latinoamerikakoak ziren.

% 4,4 desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoziala zuen (24 emakume).

Aipatu beharra dago zerbitzuaren eskaeren **lurralde-banaketa** oso zabala dela, eta horretan lagundu du zerbitzua pixkanaka deszentralizatzeak eta, horrenbestez, irisgarritasun geografikoa hobetzeak. 2019an, Bizkaiko 68 udalerritako emakumeei eman zitzaizen arreta; ordura arteko **aniztasun handiena** izan zen.

Bilbon artatu ziren emakume gehien (**% 32,5**), eta ondoren, Barakaldon (**% 6,7**) eta Getxon (**% 5,4**). Hala ere, Durangok izan zuen **10.000 emakumeko tasarik altuena**: 12,5eko tasa izan zuen, eta lurraldekoa, 9,2 izan zen. Hala ere, aurreko urteetan bezala, zerbitzua deszentralizatuta duten hiru mankomunitatek dituzte tasa handienak: Arratia (28,3), Lea-Artibai (20,3) eta Enkarterriak (14,2) dira biztanleria-indizearen arabera baliabiderako ekarpen gehien egiten dituzten erakundeak.

Sexu-erasoak (pertsone helduak)

2019an, sexu-erasoa jasateagatik artatutako emakumeen kopurua handiena izan zen Arreta Psikologikoko Zerbitzuan: **105 emakume**.

Kasu berrien kopurua ere aztertutako aldiko handiena izan zen: 63 emakume. Indarkeria-mota horretan ohikoa denez, adin-talde gazteenek jasan zituzten eraso gehien; hain zuzen, **hamarretik lau 18 eta 30 urte bitartekoak dira**.



Iturria: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta. BFA

Indarkeria-mota hori jasan zuten emakumeen % 43 atzerriko herrialdeetan jaiotakoa zen.

Adingabeak

2019an, familian bertan edo kanpoan tratatu txarren eta/edo sexu-erasoen **biktima izan ziren 117 adingaberi** lagundu zien programak; % 20,6 hazi da aurreko urteko kopuruarekiko. Kopuru horretatik, 79 (% 67,5) kasu berriak izan ziren; serieko daturik altuena. Hona hemen adingabe horien ezaugarriak.

- % 76 neska izan ziren, eta % 24, mutilak.
- Sexuaren eta indarkeria-motaren arabera, nesken erdiek baino gehixeagok (% 52) sexu-erasoa edo sexu-abusua jasan zuten, gehienetan familia barruan; % 30ek tratatu txarrak jasan zituzten familia barruan; eta gainerako % 18ak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria jasan zuten. Mutilen kasuan, % 74 etxeko tratatu txarrei dagokie, eta gainerakoa, sexu indarkeriari.
- Adinari erreparatuta, sei eta 17 urte bitarteko adingabeei lagundu zitzaion 2019an. Batez ere, 12 eta 17 urte bitarteko **nerabeei (% 80)**; izan ere, hiru indarkeria-moten kasuak biltzen dira adin-tarte horretan.
- Indarkeria-motaren eta adinaren arabera, familia barruko indarkeriak adin guztietako adingabeei eragin die. 2019an, sexu-indarkeriako kasuak 12 urtetik gorakoek jasan zituzten. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria-kasu guztiak neskek jasan zituzten, 14 eta 17 urte bitartekoek, hain zuzen.

2019an erregistratutako datuen arabera, 2004tik 2019ra bitartean, familian bertan edo kanpoan tratatu txarrak eta/edo sexu-erasoak jasan dituzten adingabeen tratamendu berrien **729 espediente** ireki edo berriz ireki dira; **neskenak** dira gehienak (% 71).


1.4. FAMILIAKO ESKU-HARTZE ESPEZIALIZATUA, FAMILIA-ESPARRUKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAN

BFAk Emakumeen aurkako etxeko indarkerian espezializatutako familian esku hartzeko programa bat dauka, indarkeriaren biktima diren eta tratatu txarren emakume bizi den etxebizitzan jarraitzen duten edo hara itzultzen diren emakumeei babes psikosoziala emateko, baita haien ardurapeko seme-alaba adingabeei ere.

2019an, 95 emakumek eta 73 adingabek hartu zuten parte programa espezializatu honetan, hau da, guztira, **168 pertsonak**. 2018an baino % 16 gutxiago; izan ere, urte hartan lortu ziren aztertutako aldiko datu handienak.

Bilakaerari dagokionez, programaren ibilbideak erakusten du urte batetik bestera etengabe handitu dela artatutako pertsonen kopurua; orain arte 2017an soilik txikitu zen kopuru hori. Urteetan zehar, gora egin du programaren arreta jasotzen duten pertsonen kopuruak; hain zuzen, datuak hirukoiztu egin dira programa martxan jarri zenetik (2006an, 57 pertsona artatu ziren).

8 grafikoa. Ekin Espezializautako Familian Esku Hartzeko Programan (BFA) artatutako pertsonak. 2006-2019




Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta.

2019an arreta jaso zuten emakumeen % 47 urtean zehar sartu zen programan (45 kasu berri).

Adinari dagokionez, erabiltzaile berri gehienak hiru tartetan banatzen ziren modu homogeneoan: ia laurdenak (% 24), 31 eta 40 urte bitartekoak; eta aurreko eta ondorengo tarteetan, % 22 kasu bakoitzean (21 eta 30 urte bitartekoak, eta 41 eta 50 urte bitartekoak).

Puntu honetan gogorarazi behar dugu adin-profila programaren irismenaren bereizgarria dela; izan ere, **50 urtetik gorako emakume** gehiago daude beste arreta-programa eta -zerbitzu batzuetan baino. 2009. urtea da ildo horretan nabarmentzekoa, arreta jaso zuten emakumeen erdiek 50 urte baino gehiago baitzituzten. Hurrengo urteetan, gero eta erabiltzaile gazte gehiago sartu dira programan, eta, hortaz, 50 urtetik gorako emakumeen ehunekoa laurdenera jaitsi da, balio absolutuetan antzeko mailan jarraitzen duen arren. 2019an, adin horietako kasu berrien ehunekoa **% 36ra igo da**.

Jasandako indarkeria-motaren arabera, aurreko urteetan bezala, 2019an ere indarkeria psikologikoa jasan zuten programan sartu ziren erabiltzaile guztiek, baina herenek jasan zuten indarkeria hori soilik. Indarkeria-mota hori ezin da gainerakoengandik bereizi, indarkeria-ekintza guztiek beti ekartzen dutelako kalte psikologikoa.



Iturria: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta. BFA

Horrek esan nahi du, urtero ikusten dugun bezala, emakume gehienek **–hamarretik zazpik– hainbat indarkeria-mota jasan zituztela batera.**

Adingabeak

Programan zeuden emakumeen erdiek baino gehiagok (% 57) seme-alabak zituzten ardurapean, gehienak adingabeak. Kasu guztietan, zeharkako esku-hartzea egin zitzaien, beren amen bidez.

2019an, 73 adingaberi eman zitzaien arreta guztira; % 42 (31 adingabe) kasu berriak ziren programan (haien amak 2019an hasi ziren tratamenduan).

14 neska (% 45) eta 17 mutil (% 55) ziren. Batez beste, 7 urte zituzten; adin-tarteka aztertuta, adingabe gehienek ez zuten hamaika urte baino gehiago (nesken % 86 eta mutilen % 88). Nabarmendu beharra dago **% 39k 5 urte baino gutxiago zuela (hots, taldetik ahulena).**


1.5. FAMILIAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA, GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN ADINGABEETAN ESPEZIALIZATUA

BFAko **Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeetan espezializatutako familian esku hartzeko programa** 2016ko azken hiruhilekoan jarri zen martxan. Programa hori honako hauei zuzenduta dago: genero-indarkeriako testuinguruetan bizi izan diren adingabeei; haien amei edo zaintzaileei; haien aitei, erasotzaileak ez direnean, eta haiekin bizi diren senideei; haien aitei, erasotzaileak direnean (betiere esku-hartzeak adingabeak –edo ama– arriskuan jartzen ez baditu); eta bikotekideak hildako emakumeen adingabeei.

2019an, guztira **124 pertsona** artatu ditu programak: **69 adingabe**, 46 emakume (adingabe horien amak, genero-indarkeriaren biktimak), lau aita erasotzaile, bi aita ez-erasotzaile eta hiru senide. Guztira, 51 familiatako pertsona eman zitzaizen arreta.


2017 (programaren lehen funtzionamendu-urte osoa) eta 2018 artean, bikoiztu egin zen arreta jaso zuten adingabeen eta familien kopurua. Eta 2019an, kopuru horrek hazten jarraitu zuen (adingabeen kopurua % 38 handitu zen).

10 grafikoa. Giren biktima diren Adingabeen Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatua (BFA). Artatutako pertsonak. 2017-2019



*Beste pertsona batzuk: aita ez-erasotzaileak eta adingabeekin bizi diren beste senide batzuk.
Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta.

2019an artatutako kasuen % 45 **berriak** izan ziren, eta **31 adingaberenak** izan ziren; **% 42 mutilak ziren, eta % 58, neskak**. Datu horiek zuzendu egiten dute aurreko urteetako joera, programan neska baino mutil gehiago baitzeuden (% 63 2018an eta % 79 2017an).



Adinaren arabera, neska gehienek (% 83) 11 urte edo gutxiago zituzten. Adin horietako mutilen ehunekoa ere handia bada ere, % 69 dira; horien artean, 12 eta 17 urte bitarteko nerabeen taldea nabarmentzen da (% 31).

Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta.


% 16k aitaren kontrako **babes-agindu** bat zuen.

Amei dagokienez, % 75ek zuen babes-agindua; aurreko urteetan % 80tik gorakoa bazen ere, balio absolutuak berdinak dira hirurtekoan (15 emakume).

1.6. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO TELEFONO BIDEZKO INFORMAZIO- ETA ARRETA-ZERBITZU ESPEZIALIZATUA 24 ORDUTAN (900 840 111)

2019an, Zerbitzuak emandako datuen arabera, guztira, **1.409 dei jaso ziren Bizkaitik**, hau da, batez beste 117 dei hilean.

Ondoko grafiko honek erakusten duenez, zerbitzuaren erabileraren bilakaera Bizkaian, hasierako urteetan jaso ziren deietan hazkunde nabarmena izan ondoren, 2008tik hona egonkortu egin da, nolabait ere. 2019an deien bolumena % 8,6 jaitsi da, aurreko ekitaldiaren aldean, izan ere, 132 dei gutxiago jaso ziren.



(*) Dei egokiak: Emakumeen aurkako indarkeriarekin lotura duten deiak bakarrik.

(**) Zerbitzuaren datu-basean egindako aldaketa batek 2011ko eta 2012ko datuen doikuntza desberdina eragin zuen erregistroan eta, beraz, ezin dira erreferentziazko aldiko gainerako urtekoekin erkatu, bilakaeraren ikuspegia izateko.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetatik abiatuta egin da: 2007ko eta 2008ko datuak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak emanak; 2009-2011, Herrizaingo Sailak, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bitartez; 2012, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea; 2013tik aurrera, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak emandakoak.

2019an jasotako dei guztietatik, % 39,5 genero-indarkeriari buruzko estatu mailako informazio eta aholkularitza juridikoko telefono bidezko Zerbitzuak (016) igorritakoak dira. Zerbitzu horrek Bizkaitik egindako 1.009 dei jaso ditu, eta horietatik % 55,2 EAEko zerbitzura bideratu dira, hau da, 557 dei.

Indarkeria-motaren arabera azterketak erakusten du dei gehienak, alegia, % 92,3 bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriarekin lotuta daudela. Gainerako deiak antzera banatzen dira sexu-indarkeriaren (% 4,3) eta familia barneko genero-indarkeriaren (% 3,4) artean.

Aipagarria da bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriarekin lotutako deiak egin dituzten pertsonen % 65,1ek, arreta eman zaien unean, biktimari eragindako tratu txarren kontzientzia-maila ertaina (% 31,9) edo altua (% 33,2) dutela, eta kasuen % 63,1ean, biktimak gero eta tentsio handiagoko egoeretan egon dira.

Bestalde, zerbitzuak erregistratu egiten ditu jasotzen dituen deien oinarrian diren arrazoiak; dei baten atzean arrazoi bakar bat edo gehiago izan daitezke. Txosten honen erreferentzia-urtean, deien % 40,5 arrazoi bakarrak eragindakoak dira, eta % 59,5 arrazoi bat baino gehiagok eragindakoak izan dira. Bi multzo horietan, deia egiteko arrazoi nagusiak akonpainamendu eta jarraipen telefonikoa, informazioa eta orientazioa izan dira.

Esku-hartzeen kopurua eta mota ere erregistratzen dira. Kasu gehienetan, (% 86,4) esku-hartze bat baino gehiago egiten da, eta deien atzean dauden arrazoiak erantzuten diete esku-hartze ohiek. Gainera, esku-hartze mota bat, laguntza emozionala, ez da arrazoi gisa erregistratzen, baina beharrezkoa izaten da esku-hartze bat baino gehiago egiten diren deien % 81,3an.

Deiak egin zituzten pertsonak

Batzuetan, pertsona batek berak behin baino gehiagotan deitu du Zerbitzura; hori dela eta, erregistratutako 1.409 deiak **1.001 pertsonari dagozkie**. 2018ko datuaren aldean, 2019an 29 lagun gehiago kontabilizatu dira.

Jasotako deien kopuruak bezala, zerbitzu hori erabili duten pertsonen kopuruak ere, nabarmen egin du gora aztertutako epearen (2006-2019) hasierako urteetan. Igoera horren ondoren, egonkor mantentzen da erabiltzaile-kopurua, 1.000ren inguruan.

2019an Zerbitzuarekin harremanetan jarri diren **hamar lagunetik bederatzi emakumeak dira, 2006an Zerbitzua abiatu zenetik bezala**.

Kontsultaren bat egiten duten pertsonen banaketa aurreko urteko zenbakiek erakusten zuten bera da: % 65,9 indarkeriaren biktima diren emakumeak dira; % 26,6 biktima diren pertsonen hurbileko edo familiako pertsonak; eta % 7,5 profesionalak dira.

Zerbitzua erabiltzen duten pertsonen profilen bilakaeran aipagarria hurbileko edo familiako pertsonen kopuruaren hazkundera: 2006an inguruko edo familiako 103 pertsona kontabilizatu ziren, eta 2019an 266 izan ziren; beraz, hazkundera % 158,3koa da.

Zerbitzura deitzen duten emakume biktimei dagokienez, alderdi hauek dira aipagarriak:

- Zerbitzua erabiltzen duten emakume gehienak (% 94,5) bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktimak dira, eta horietatik % 69,4k tratu txar forma bat baino gehiago jasan izan dute.
- Tratu txar psikologikoa kasu guztietan ageri da, bai tratu txar mota bat jasan duten emakumeen artean, bai tratu txar mota gehiago jasan duten emakumeen artean.
- Biktimen % 59,1ek adingabeko umeak dituzte beren kargu.

1.7. ETXEBIZITZA-ARLOKO LAGUNTZAK

Gaur egun, indarkeriaren biktima diren emakumeen aldeko ekintza positiboko bi neurri daude etxebizitzaren arloan:

1. Alokairu-araubideko etxeak zuzenean esleitzea egoera larrietan eta salbuespen-egoeretan, eskatzailea udalaren edo foru-aldundiaren harrera-etxeen edo -zentroen erabiltzailea izan denean.

2019an **17 etxebizitza esleitu ziren** Bizkaian, hau da, EAEn esleitutako guztien % 56,7. Eskabide horien jatorriari dagokionez, 8 eskabide Bizkaiko Foru Aldunditik iritsi ziren, 7 Bilboko Udaletik, eskabide bat Amorebieta-Etxanoko Udaletik eta beste bat Santurtziko Udaletik. Bestalde, hiru eskabide **ukatu ziren**, baldintzak ez zituztelako betetzen, eta urtearen amaieran zazpi eskabide **ebatzi gabe** geratu dira. Guztira, 27 eskabide erregistratu dira Bizkaian: 22 eskabide 2019an aurkeztutakoak ziren, eta gainerako 5ak 2018tik ebazteko zirenak.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren datuek erakusten dutenaren arabera, aztertutako epea kontuan hartuta, 2019an erregistratzen da aurkeztu eta onartutako eskabideen kopururik handiena.

Onuradunen ezaugarriak

- Emakume onuradun gehienak ez dituzte 40 urteak gainditzen (% 70,6).
- Emakume horien % 76,5 atzerriko herrialdeetan jaioetakoak dira (2018an portzentaje hori % 45,5ekoa zen).
- Bizikidetza-unitatearen (BU) tamainari dagokionez, pertsona bakarreko familien bi kasu erregistratu ziren. Gainerakoak bi, hiru eta bost laguneko familiak izan dira.

2. Puntu gehigarriak lortzea alokairuko Babes Ofizialeko Etxebizitzaren promozioetako baremazioetan.

2019ko abenduaren 31n eskura dauden datuen arabera, **genero-indarkeriaren biktima izatea egiaztatu zuten emakumeen 548 espediente aktibo zeuden Etxebiden** (Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua), Bizkaian dagokionez. Neurri hori abian jarri zenetik, espediente aktiboen kopurua nabarmen handitu da. 2019an, hazkundera % 11,2koa da, aurreko urtearen aldean, baina datua 2013koarekin alderatzen badugu, hazkundera % 77,3koa da.

2019an, gainera, nabarmen ugaltu dira, bai Etxebideren erregistroan jasotako altak, bai emandako esleipenak. Altei dagokienez, % 38 hazi dira, aurreko urtearen aldean, alegia, **138 alta** erregistratu dira. **Esleipenak**, berriz, % 47,5 ugaltu dira, eta horrenbestez, neurri honen bidez alokairuko etxebizitza baten esleipena lortu duten emakumeak, guztira, 59 dira, hau da, 2018an baino 19 gehiago.

Genero-indarkeriaren biktima izatea egiaztatzen duten emakumeen espedienteen ezaugarriak (espediente aktiboak, esleipenak, altak):

Bizikidetza-unitatearen (BU) eraketa

- **Espediente aktiboen** % 61,5 bi eta hiru kideko Bizikidetza Unitateetan bizi diren emakumeei dagozkie.
- 2019ko **esleipen** gehienak (% 84,7) **BUan ahaidetutako pertsonak dituzten emakumeei** dagozkie.
- **Erregistro berriei** dagokienez, emakumeen % 29,7k ez dute ahaidetutako inor Bizikidetza Unitatean, eta % 70,3 ahaide, ezkontide edo bikotekidearekin bizi dira.

Adina

- **Espediente aktiboen** zati handi bat (% 68,4) **31 eta 50 urte** bitarteko emakumeei dagozkie, eta adin-tarterik jendetsuena 31 eta 40 urte bitartekoa da.
- Urtean zehar egindako **esleipenen % 66,1** ere 31 eta 50 urte bitarteko emakumeei egokitu zaizkie, hainbeste espediente aktiboen kasuan gertatzen den moduan.
- Erregistratutako **alta** gehienak (% 69,6) 18 eta 40 urte bitarteko emakumeek eman dituzte.

Nazionalitatea


- **Espediente aktiboetatik**, 201 emakume atzerritarrei dagozkie (% 36,7), guztien artean 34 nazionalitate desberdin biltzen dituztela.
- Atzerriko emakumeen portzentajea % 45,8ra igotzen da **etxebizitza baten esleipendunak** direnen kasuan, guztira 27 emakume direla, 15 nazionalitate desberdinetakoak.
- **Erregistroan alta** eman duten emakumeetatik 53 (% 38,4) atzerritarrak dira, tartean direla 17 nazionalitate desberdin.

1.8. DIRULAGUNTZAK (1/2004 LOko 27. artikulua)

2019an dirulaguntzak jasotzeko **224 eskaera**⁴ jaso dira Bizkaitik, hots, EAEn egindako eskaera guztien % 57,3.

Aztertutako eskabide guztietatik, 118 **esleitu** dira, 69 **ukatu** dira eta 4 eskaera **bertan behera geratu** dira. Ekitaldia amaitzean, 33 eskaera **ebatzi gabe** zeuden.

Ondoko grafiko honetan, aztertutako epean arreta jaso duten eskabideen kopuruan izan den hazkunde nabarmena ikus daiteke: 2009koaren aldean, 2019ko kopurua urte hartakoa halako bederatzi da. Gainera, 2019an, 63 eskabide gehiago atenditu dira, eta 22 eskabide gehiago esleitu dira, aurreko urtean baino; horrenbestez, haxe da, orain artean, eskabide gehien atenditu eta esleitu diren urtea.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarritua: 2009-2011, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Barne Saila; 2012, Emakunde; 2013tik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Laguntzen zenbatekoak eta onuradunen ezaugarriak

Laguntzaren zenbatekoa, oro har, sei hilabeteko langabezia-sariari dagokion zenbatekoaren baliokidea da, eta zabaldu daiteke hamabi, hemezortzi edo hogeita lau hilabeteri dagokien kopurura, bi aldagairen arabera: biktimaren **familia-erantzukizunen** (bere kargu dituen adingabeen edo ahaideen kopurua) arabera, eta biktimak nahiz biktimaren ardurapean dagoen pertsonak duen **desgaitasun**-mailaren arabera (% 33koa edo gehiagokoa).

⁴ 214 eskabide 2019an aurkeztu ziren, eta gainerakoak 2018tik ebatzi gabe zeuden eskabideak dira, 2019an izapidetu direnak.

Jasotako zenbatekoen arabera, 2019ko diru-laguntzen onuradunen banaketaren ezaugarriak honako hauek dira:

- **% 22k oinarrizko zenbatekoa** jaso zuen, hau da, langabeziagatik 6 hilean jasotzen den kopurua (2.556 €). Aitortutako desgaitasunik eta ardurapeko ahaiderik ez duten emakumeek osatzen dute talde hori.
- **% 43,2k** langabeziako 12 hileko sariaren parekoa jaso zuen (5.112 €). Beren kargu pertsona bat duten edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten emakumeak dira.
- **% 30,5ek** 18 hilean jasotzen den sariaren parekoa jaso zuen (7.668 €); ardurapean bi ahaide edo gehiago dituzten emakumeak dira, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen pertsona bat ardurapean duten emakumeak; edo beren ardurapean pertsona bat izanik, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten emakumeak.
- Gainerako **% 4,3ak** jaso zuen kopurua (10.224€) langabeziako 24 hilean jasotzen den kopuruaren parekoa da; hau da, emakume horiek dekretuak jasotzen dituen **ahultasun handieneko bost egoeretako** batean daude, beren kargu dituzten pertsonen kopuruagatik eta pertsona horien edo/eta eskaria egin duen pertsonaren desgaitasun-maila handia delako.

2019an, onuradunen **% 34,7k diru-laguntzarik handienak** (18 eta 24 hilabeteren baliokideak) jaso zituzten, guztira 41 emakumek.

Jaioterriari dagokionez, **emakume onuradunen % 46,6 atzerriko herrialdeetan jaiotakoak dira**. 15 herrialdetakoak dira, gehienak Latinoamerikakoak (% 60) eta Afrikakoak (% 34,5). Gainerako % 5,5ak Europako emakumeak dira.

Adinari dagokionez, 2019ko emakume onuradunen % 73,7 **ez dituzte 40 urteak gainditzen**, hau da, aurreko urtearen aldean, portzentajea zazpi puntu handiagoa da. Kasuak antzera banatzen dira 18 eta 40 urte bitartean: 18tik 30era bitarteko 41 emakume erregistratu dira (% 34,7) eta 31tik 40ra bitarteko 46 emakume (% 39). 41 eta 50 urte bitartekoak 20 emakume dira (% 16,9), 51 eta 64 urte bitartekoak bederatzi emakume (% 7,6) eta 65 urtetik gorako bi emakume (% 1,7).

Bizkaian esleitutako eskabideak **22 udaletako** emakumeen artean banatzen dira. Aurreko urteetan bezala, Bilbo da emakume onuradun gehien biltzen dituen udala.

2.POLIZIA-ESPARRUA

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren biktimizazioen estatistikatik datozen datuak aurkeztuko ditugu. Estatistika horrek *“legez kontrako egintza penal guztiak”* biltzen ditu, *“Ertzaintzan egintza penal gisa erregistratuta geratu direnak, herritar batek jarritako salaketa baten bidez edo atestatu baten bidez”*.

Sail horrek egiten duen sailkapenari jarraituz, **emakumeen aurkako indarkeria** terminoak hiru mota hartzen ditu barne, indarkeria hori gauzatzen duen pertsonarekiko harremanaren arabera:


1. **Bikotekideak edo bikotekide ohiak** eragindako indarkeria.
2. **Familia barruko genero-indarkeria**: gizonak familia-eremuan emakumeen aurka eragindako indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik).
3. Gizonak aurreko eremuetatik kanpo emakumeen aurka eragindako **sexu-izaerako indarkeria**.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BIZKAIA (EAI). EZAUGARRI NAGUSIAK

2019an, Ertzaintzak emakumeen aurkako indarkeriaren **2.989 biktimizazio** erregistratu zituen (EAEko guztien % 54,2). 10.000 emakumeko biktimizazio-kopurua (biktimizazio-tasa) **50,11** da.

2019an, emakume bat hil zen familia barruko indarkeriaren ondorioz (Bilbo).

Aurreko urtearekin alderatuta, biktimizazioen bolumena % 2 handitu zen. Aztertutako aldi osoan, 2019ko datua da **erregistrorik altuena**.



Iturria:
Eusko Jaurlaritzako Segurtasun
Sailaren datuetan oinarrituta.

Bilakaerari dagokionez, adierazle horrek **goranzko joera** du Bizkaian. 2003tik 2019ra bitartean, kopurua % 79 igo da; balio absolutuetan, 2003an baino 1.319 biktimizazio gehiago jaso ziren azken urtean, hots, 2019an.


2019an, gertakari horien **emakume biktimen** kopurua 2.372koa da, eta biktimizazioen kopurua baino txikiagoa da; izan ere, biktima batek beharbada indarkeria-gertakari bat baino gehiago jasan du.

Indarkeria-motaren arabera, kasu gehienak (% 75) bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriari dagozkio; % 17, familia barruko indarkeriari; eta % 8, sexu-askatasunaren kontrako delituei.

2019an biktimizazioen bolumenean izandako gorakada bi indarkeria-moten artean banatzen zen:

bikotekidea/bikotekide ohia (% 1,6)
eta sexu-indarkeria (% 23).


15. grafikoa. EKIgatiko emakumeen biktimizazioak indarkeria motaren arabera. BLH. 2019




Lurralde-banaketari begira, aurreko urteetan bezala, 2019an ere biktimizazioak **orokorrak** izan ziren lurralde osoan: indarkeria-mota horietako gertakariren bat gertatu zen Bizkaiko 112 udalerrietatik 90etan (biztanleriaren % 99 biltzen dute udalerrri horiek).

4. irudia.

EAiren ondoriozko biktimizazioen kop.



EAiren ondoriozko biktimizazioen tasa*




Tasa 10.000 emakumeko
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila

Bizkaiko hamar udalerri handienek (25.000 biztanletik gorakoak) biktimizazio gehienak izan zituzten: **100 gertakaritik 70** udalerri horietako batean gertatu ziren; datu hori bat dator udalerri horiek duten biztanleriaren bolumenarekin.

Udalerri horietako bakoitzak errealitate jakin bat du, eta errealitate horiek agerian uzten dute biktimizazioen kopurua ez dagoela biztanleen kopuruaren mende soilik. Udalerri jakin bateko biktimizazio-kopurua eta biztanleria-bolumena (10.000 emakumeko tasa) erlazionatzen dituen adierazleak agerian jartzen duenez, alde nabarmenak daude udalerrien artean, lurraldeko batezbestekoarekin alderatuta.

Kontuan hartu behar da datu horiek (zerbitzu publikoen erregistroetatik hartuak) ez dutela adierazten fenomenoak udalerri horietako bakoitzean duen intentsitatea, baizik eta **sistemaren erantzun-ahalmena, biztanleek baliabide horretaz egiten duten erabilera eta jarduera poliziala bera.**



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta.


Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria

2019an, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriagatik, emakumeen **2.230 biktimizazio** izan ziren Lurraldean. 1.659 emakume biktima izan ziren; aurreko urtean baino % 2,34 gehiago.

Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriagatik biktimizazioen tasa **37,39 da 10.000 emakumeko**.

2019an, ez zuten inor hil Bizkaian indarkeria-mota horregatik. 2004az geroztik, 22 emakume hil dira Bizkaian, bikotekideak edo bikotekide ohiak erailda. 2019a baino lehen, bi urtetan soilik (2012 eta 2013) ez zen hildakorik erregistratu.

Denboran zeharreko bilakaerak erakusten du, Ertzaintzak Bizkaian jasotako datuen arabera, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-gertakariak hazkunde erregularra izan dutela. 2019ko datua serie historikoko **maximo** bat da. Aztertutako aldiaren hasierarekin alderatuta, 1.000 biktimizaziotik gorako aldea dago; bi urteen artean, % 85,7ko gorakada egon da.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta.

Hona hemen 2019an biktimizazioa jasan zuten emakumeen ezaugarriak:

- Aurreko urteetan bezala, gertaeren erdiak baino gehiago (% 53,7) banantze-testuinguruan gertatu ziren: erasotzailea biktimaren **egungo bikotekidea ez denean**.
- Jaiolekua kontuan hartuta, biktimen % 57,3 EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeak ziren, eta % 42,7, berriz, atzerriko herrialdeetan jaiotakoak. Aurreko urtearekin alderatuta, EAEn eta beste autonomia-erkidego

batzuetan jaiotakoen kopuruak behera egin zuen (-% 3,5), eta atzerrian jaiotakoen kopuruak, gora (% 11,5).

- Adinaren arabera, biktimen herenak 31 eta 40 urte bitartekoak ziren. Aurreko eta ondorengo tarteetako bakoitza laurdena da (% 25,5, 21 eta 30 urte bitartekoak; eta % 25, 41 eta 50 urte bitartekoak).
- **Neska adingabeen** kasuan, 26 biktima eragin zituen guztira bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriak (30, 2018an). 14 eta 17 urte bitarteko 23 nerabe izan ziren, eta 14 urtetik beherako hiru.

Familia barruko indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa salbu)

2019an, emakume bat hil zen indarkeria-mota horregatik (Bilbo).

Urtean zehar, Ertzaintzak emakumeen **524 biktimizazio** erregistratu zituen Bizkaian, familia barruko indarkeriaren ondorioz. Biktimizazioen tasa **8,79** izan zen 10.000 emakumeko.

2018. urtearekin alderatuta, biktimizazio-kopurua % 4,2 txikitu zen. Indarkeria-mota horretan, hiru talde bereizten dira biktimaren eta erasotzailearen arteko harremanaren arabera (alaba adingabea, ama eta gainerako senideak), eta talde horietatik, biktima erasotzailearen ama duten gertakariak soilik gehitu ziren (% 6,4).

Adingabeen biktimizazioak 118 izan ziren: 14 urtetik beherako 75 neskarenak, eta 14 eta 17 urte bitarteko 43 neraberenak.

Sexu-indarkeria

2019an, Ertzaintzak sexu-askatasunaren aurkako delituen ondoriozko emakumeen **235 biktimizazio** erregistratu zituen Bizkaian (233 emakumezko biktimari dagozkie). % 92 sexu-erasoko edo sexu-abusuko delituei dagokie.

Aurreko urtearekin alderatuta, % 23 handitu zen biktimizazio horien kopurua (2018an, 191 biktimizazio erregistratu ziren).

Lurralde-tasa **3,94** biktimizaziokoa izan zen, 10.000 emakumeko (3,21ekoa izan zen 2018an).

Adinari erreparatuta, biktimen erdiek (% 51) 20 urte edo gutxiago zituzten. Indarkeria-mota horretan ohikoa denez, **sexu-indarkeriaren hiru biktimatik bat adingabea izan zen.**

3. ESPARRU JUDIZIALA


3.1. PROZESU JUDIZIALAK

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, 2019an, **310 auzi zibil** sartu ziren Bizkaiko barruti judizialetan, zuzen edo aldaketa bidez. Azken hiru ekitaldietan bezala, auzi zibilen bolumenak, berriro ere, behera egin du: aurreko urtearen aldean, sartu diren auzi zibilak % 3,4 jaitsi dira, alegia, 11 auzi zibil gutxiago erregistratu dira. Beraz, 2006ko zenbakiaren ondoren (urte hartan 254 auzi zibil sartu ziren) 2019an aztertutako epe osoko zenbakirik txikiena erregistratu da.

Berriro ere, sartu diren auzi zibilen eta penalen arteko aldea adierazgarria da. 2019an **4.591 auzi penal** sartu ziren. 2018ko kopuruaren aldean, % 8,3ko hazkundea izan da eta, berriro ere, aztertutako epe osoko zenbakirik altuena erregistratu da.

2019an Bizkaiko epaitegietan kontabilizatutako salaketen bolumenak ez du alde handirik erakusten, aurreko urtekoaren aldean: urtean zehar 3.245 salaketa erregistratu ziren, 2018an baino hiru gutxiago, hau da, alde-aldera, egunean, bederatziren bat salaketa. Demanda gehienak (% 67,2) biktimek jarri zituzten, eta **polizia-atestatua** izan zen gehien erabili zuten bidea (% 62,8).

491 Babes Agindu abiarazi dira guztira, hau da, 2018an baino % 57,9 gehiago. Grafikoak erakusten duenez, 2016an eta 2017an, ukatutako Babes Aginduak gehiago izan ziren, onartutakoak baino. Baina 2018an, berriz, proportzioak atzera aldatu ziren eta, 2019an, gainera, handitu egin zen onartutako eta ukatutako aginduen arteko aldea: aginduen % 65,8 onartu ziren eta % 34,2 ukatu ziren.




Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuak oinarri hartuta egina.

Datuek erakusten dutenez, Bilboko Barruti Judizialean erregistratu da jarduera-bolumenik handiena, Babes Agindu guztien % 46,8 han abiarazi baitziren.

Babes-aginduen banaketa, **nazionalitateari** erreparatuta, aurreko ekitaldikoaren oso antzekoa da. Emakume biktima espainiarren portzentajea % 61,1era iristen da, eta atzerriko emakumeena, berriz, % 38,9koa da. 2018koen aldean, zenbakiak hazkunde handia erakusten dute, bai nazionalitate espainiarra duten biktimei dagokienez, bai atzerriko nazionalitatea duten biktimei dagokienez. Hala ere, atzerriko nazionalitatea duten emakumeen kasuen hazkundearen ondorioz, 2019an erregistratutako zenbakia aztertutako epe osoko zenbakirik altuena da.

Grafikoan ikus daitekeenez, abiarazitako babes-aginduen bilakaera biktimen nazionalitatearen arabera aztertuta, nabarmena da Espainiako emakumeen beherakada, eta atzerriko emakumeen kopurua, berriz, ez da askorik aldatu.



Iturria: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuak oinarri hartuta egina.

Beste alde batetik, salatutako gizonen buruzko datuek ez dute alde handirik erakusten nazionalitateari dagokionez, eta biktimen kasuan bezala, proportzioak 2018an ikusi zirenen oso antzekoak dira: salatutako gizonen % 57 espainiar nazionalitatekoak dira, eta % 43 atzerriko nazionalitatekoak. Oraingo honetan, azpimarragarria da atzerriko nazionalitatea duten gizonen hazkundera, izan ere, aurreko ekitaldiaren aldean, % 80,3 gehiago dira: 2018an atzerriko nazionalitatea zuten 117 gizon salatu ziren, eta 2019an, berriz, 211, eta haxe da 2005etik hona erregistratutako zenbakirik altuena.

Biktimaren eta salatutako gizonen arteko harremanari dagokionez, kasuen % 54,2an indarkeriaren egilea bikotekide edo ezkontide ohia da, eta etendako harreman afektiboak dira Babes Agindu gehien biltzen dituztenak (% 39,1). Auziaren unean ezkontide edo bikotekide direnen kasuak, berriz, % 45,8 dira.

Salatutako 606 gizonen artean, % 63,4 espainiar nazionalitatekoak dira, eta % 36,6 atzerriko nazionalitatekoak (proportzio hau altuenetakoa da, aztertutako aldi osoan). **Prozeduraren ebazpenari** dagokionez, auzibideen % 95,1ean epai kondenatzaileak eman ziren. Hala ere, prozeduren amaierako formei dagozkien zenbakiek erakusten dutenaren arabera, % 20,4 bakarrik amaitu zen epai kondenatzailea emanda.

Adingabeak: babes eta segurtasunerako kautelazko neurri zibilak

Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen babesari dagokionez, hauek dira kautelazko neurri zibil nagusiak: bisita-araubidea etetea, guraso-ahala etetea, zaintza edo jagoletza etetea, eta arriskuren edo kalteren bat saihesteko adingabeak babesteko neurria.

2019an zehar guztira 35 neurri ezarri dira adingabeak babesteko helburuz, eta horrenbestez, hori izan da neurri gehien kontabilizatu diren urteetako bat (2012an eta 2013an 38 neurri erregistratu ziren): neurri horietatik 17 zaintza eta jagoletza eteteari dagozkio, 12 adingabeen babesari, eta sei bisita-araubidea eteteari. 2019an ez da erregistratu guraso-ahala eteteko neurririk.

2005etik hona, 291 neurri ezarri dira Bizkaian. Neurri horien % 47,4 zaintza eta jagoletza eteteko izan dira (138); % 30,9 adingabeak babesteko neurriak (90) izan dira; % 19,6 bisita-araubidea etetekoak (57); eta guraso-ahala eteteko agindua kasuen % 2,1ean ezarri da (6). Aztertutako aldian ezarritako neurrien % 92,1 Babes Neurri baten esparruan ezartzen dira.

4. OSASUN-ESPARRUA

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak 2018an eta 2019an Bizkaiko osasun-arloko **Larrialdietako Arretaren eta Lehen Mailako Arretaren (LMA)** arloetan hautemandako genero-indarkeriako kasuei buruz eskuratutako datuak aurkezten dira. Kasuak **14 urteko edo gehiagoko emakumezkoei** buruzkoak dira.

4.1. LARRIALDI-ZERBITZUAK

2019an genero-indarkeriazko 371 kasu detektatu ziren Bizkaiko larrialdi-zerbitzuetan. Horrek adierazten zuen % 5,7ko hazkundera izan zela, aurreko urteko datuen aldean, eta horrenbestez, aztertutako aldi osoko kasu-kopururik altuena bihurtu zen (2013-2019).

Erakunde sanitarioen arabera banaketari erreparatuta, 2013tik gertatzen den bezala, Bilbo-Basurtuko ESI eta San Eloi Ospitalea izan dira kasu gehien erregistratu dituzten erakundeak (% 59,8 eta % 15,1, hurrenez hurren). Barrualde-Galdakaoko ESI artatutako kasuen % 9,7 biltzen dira; Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean jaso dira kasuen % 9,4; eta Uribeko ESI % 5,9.

Aurreko urteko datuekin alderatuta, ez da aldaketa nabarmenik ikusten: aldaketarik handiena Barrualdea-Galdakaoko ESI hautemandako kasuetan ageri da, izan ere, 2018an genero-indarkeriazko 26 kasu kontabilizatu ziren, baina 2019an 36 kasu erregistratu dira. Bestalde, Uribeko ESI da detektatutako kasuen jaitsiera erakusten duen erakunde sanitario bakarra, hain zuzen ere, aurreko urtean baino sei kasu gutxiago jaso baitira.

3. Taula. Larrialdietan hautemandako kasuak, osasun-erakundearen arabera. 2018-2019 Bizkaia.

	2018	2019	Δ
San Eloi Ospitalea	50	56	12,0
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea	33	35	6,1
Barrualde-Galdakaoko ESI	26	36	38,5
Bilbo-Basurtuko ESI	214	222	3,7
Uribeko ESI	28	22	-21,4
GUZTIRA	351	371	5,7

Oharra: ESI: Erakunde Sanitario Integratua. Barrualde-Galdakaoko ESIk Gernika-Lumo Ospitalea eta Galdakao-Usansolo Ospitalea barne hartzen ditu; Bilbo-Basurtuko ESIk Basurtuko Unibertsitate Ospitalea barne hartzen du; Uribeko ESIk Urdulizko Alfredo Espinosa Ospitalea barne hartzen du.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarritua. Osasun Saila

Ospitaletako larrialdien arloan hautemandako kasu gehienak **40 urte baino gutxiagoko** emakumezkoen kasuak dira (% 65). Larrialdietako osasun-erregistroek 50 urtetik gorako emakumeen presentzia urria islatzen dute, gainerako adin-taldeekin alderatuta: Bizkaiko Ospitaletako Larrialdi Zerbitzuen bidez hautemandako kasuen % 13,5 dira adin horretakoak.

Aurreko ekitaldietan bezala, datuen sailkapena tratu txar motaren arabera eginda, ikusten da kasu ugari sailkatzen dela modu literal batean (73,3%)⁵. Tratu txar fisikoak kasuen % 19,8 biltzen ditu, eta sexualak % 6,8. Tratu txar psikologikoaren kasu bat detektatu da. Aurreko urtearen aldean, aldaketarik adierazgarriena ikusten da indarkeria fisikoaren kasuetan, izan ere, % 31,7 handitu da detektatutako kasuen kopurua.

4.2. LEHEN MAILAKO ARRETA (LMA)

Lehen Mailako Arreta Zerbitzuak, guztira, genero-indarkeriazko 293 kasu detektatu ditu urtean zehar. Aurreko ekitaldiaren aldean % 5,4ko hazkundera izanik, 2019koa izan da kasu gehien artatu diren urtea, aztertutako epe osoan.

Datua erakunde sanitarioen arabera aztertuz gero, banaketa 2018ko datuek ematen zutenaren antzekoa izan zela ikusten da. Barrualde-Galdakaoko ESI da, aurreko urteetan bezala, kasu gehien detektatu zituen erakunde sanitarioa, guztien % 51,2arekin.

Beste alde batetik, 2018koaren aldean, alderik nabarmenena Uribeko ESIⁿ hautematen da (12 kasu gehiago detektatu dira) eta Barrualde-Galdakaoko ESIⁿ (bederatzi kasu gehiago detektatu dira). Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESIⁿ, Barakaldo Sestaoko ESIⁿ eta Bilbo-Basurtuko ESIⁿ artatutako kasuen kopuruak egonkor dirau.

4. taula. Lehen Mailako Arretan hautemandako kasuak, osasun-erakundearen arabera. Bizkaia. 2018-2019

	2018	2019	Δ
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESI	27	27	0,0
Uribeko ESI	25	37	48,0
Barakaldo Sestaoko ESI	19	16	-15,8
Barrualde-Galdakaoko ESI	141	150	6,4
Bilbo-Basurtuko ESI	66	63	-4,5
GUZTIRA	278	293	5,4

Oharra:ESI: Erakunde Sanitario Integratua.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. Osasun Saila

⁵ Larrialdien Zerbitzuan kasuen erregistroa egin daiteke GNS-10aren bidez (Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena), edo tratu txarra hitzez hitz jasoz.

Adin-taldeka, Lehen Mailako Arretan hautemandako **kasuen ia erdiak** (% 46,1) **30 eta 49 urte arteko** emakumeei dagozkie. Kasuen % 22,2 dagozkie 30 eta 39 urte bitarteko emakumeei, eta % 23,9 dira 40 eta 49 urte bitarteko emakumeak.

Lehen Mailako Arreta Zerbitzua da, betiere, **50 urtetik gorako emakumeak** gehiago agertzen diren espazio bat, arretaren beste arlo batzuen aldean. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Departamentuak emandako datuen arabera, gehiago agertzen dira espazio horretan, **kasuen % 31,4** biltzen baitira.

Tratu txar motaren sailkapenari dagokionez, 2019an tratu txar fisikoa (% 61,4) eta psikologikoa (% 27,5) dira kasu gehien biltzen dituztenak. Kasuen % 6,5ean tratu txar sexuala detektatzen da, eta % 4,2an tratu txarren biktimei aholkularitza eskaini zaie. Gainerako % 0,3a bestelako tratu txar edo abandonuei dagokie.

Aurreko urtearen aldean, azpimarragarria da handitu egin dela tratu txar fisiko (27 kasu gehiago) eta sexuala (12 kasu gehiago) erregistratzen dituzten kasuen kopurua.